

**VITORIA
GASTEIZ**  **European
green capital
2012**

**2011-
2012**

**ESKOLAKO AGENDA 21 VITORIA-GASTEIZ
ELIKADURA JASANGARRIA**



[LUIS DORAO]

SARRERA

Jaun andere preziatuak:

Foro honetara gatozenak, proiektu honetan diharduten Vitoria-Gasteizko haur hezkuntza eta lehen hezkuntza irakasten duten 23 ikastetxeetako 11.100tik gora ikasleen izenean egiten dugu.

Aurten, Eskolako Agenda 21 proiektuaren barne, **Elikadura jasangarria** gaia landu dugu.

Ikasturtean zehar diagnostia egin dugu eta bildutako emaitzak aztertu ondoren, udalari zein herritarrei hobekuntza proposamenak azaldu dizkiegu eta guk ere banakako konpromisoak hartu ditugu. Aldabe Gizarte Etxean, apirilaren 25ean bildu ginen ikasleak elkarlanean aritzeko eta iritziak eta ikuspuntuak elkartrukatzeko. Honez gain interesgarrien iruditu zitzaizkigun proposamenak bozkatu genituen.

Lan guzti hau ezinezkoa izango litzateke gure irakasleen, familien eta Vitoria-Gasteizko hiritarren partaidetza eta laguntzarik gabe, beraz gure esker ona denoi.

[NIÑO JESÚS]

AURREKO URTETAKO PROPOSAMENEN JARRAIPENA

2011-2012 ikasturte honetan landutakoa aurkeztu baino lehen, **Mugikortasun** gaiaren inguruan 2005-2006 eta 2009-2010 ikasturteetan udalari aurkeztutako proposamenen jarraipena egin dugu eta lortutako emaitzak aipatu nahi ditugu.

Jarraian bete diren proposamenak adieraziko ditugu:

1. Jendeak autoa gutxiago erabili dezan kanpainak edo iragarkiak egitea.

[LÓPEZ DE GUEREÑU]

Ondoren, bete ez diren proposamenak:

1. "Zigortu" erabiltzaile bakar batekin doazen ibilgailu pribatuak.
2. "Bidegorriak toki seguruagoetan ipini eta autoekin errepidea partekatzen dituztenak ezabatu."
3. Semaforoak egokitu guztiek soinua izan dezaten.
4. Autobus geltokietan autobusa iristeko zenbat denbora falta den adierazten duten erlojuak ezarri.

5. “Vitoria-Gasteizko auzo guztietara heldu dadila tranbia (unibertsitateko zonaldea, Boulevard, e-a.)”

[MARIANISTAS]

Hauetako proposamen batzuen jarraipena egiterakoan, jasotako iritzia desberdina izan da ikastetxeen arabera.

Gehienek proposamen hau burutzen ari dela uste dugu:

- “Bidegorrein sarea zabaltzea eta lotzea, hiri osoa hobeto konekta dadin batez ere hirigunearekin eta eskolekin”.
- Baina beste proposamen hau aldiz ikastetxe guztien ustetan ez da bete: “Arkitektura oztopoekin bukatu: gurpildun aulkientzat arrapalak edo egitura bereziak jarri.”

Gure esker ona Udalari jaramon egiteagatik eta kontutan hartu izanagatik.

Jarraian ikasturte honetan Elikadura jasangarriaren inguruan jasotako emaitzak aurkeztuzko ditugu.

[CORAZONISTAS]

ELIKAGAI EKOLOGIKOAK, BERTAKOAK ETA GARAIOAK

Senitartekoak eta bizilagunak elkar hizketatu ditugu, nola elikatzen garen ezagutzeko, bertako elikagaiak, ekologikoak eta garaioak kontsumitzen ditugun jakiteko eta zeintzuk diren erosketak egiteko orduan erabilitako irizpideak ezagutzeko.

Bertakoak, ekologikoak eta garaioak diren produktuen aurrean ohiturak hobetzen joateko, ikasleak **konpromiso** hauek hartuko ditugu:

[HOGAR SAN JOSÉ]

- Denda ekologikoetara joatea erostera.
- Gure guraso eta lagunek produktu ekologikoak eta garaioak eros ditzaten animatzea eta informatzea.
- Asteko egun batean hamarretarako fruta pieza bat ekartzea.
- Industrialki egindako produktuak ahalik eta gutxien erostea edo hartzea.
- Postrerako eta askarian fruta jatea.
- Baserria eta bertan dauden animalien bizimodua ezagutzea eta egokia dela ziurtatzea.
- Baserriko baratzetan eta itsasoan jatorria duten janari gehiago jatea.
- Bertako denda txikietan produktuak erostea eta ez horrenbeste supermerkatuetan.

[VIRGEN NIÑA]

Beste honako **konpromiso** hauek hartuko ditugu eta era berean hiritarrei **proposatzen** diegu:

- *Erosi baino lehen hobeto informatzea eta natura kaltetu dezaketen zenbait kapritxo baztertzea (kutsadura sortzen duten kanpotik ekarritako produktuak,...). Jakien jatorrian arreta ipini, ekoiztua nola izan den, e.a.¹*
- *Garaiko eta ekologikoak diren produktuak ezagutzea, erostea eta kontsumitzea, nahiz eta itxura "itsusiagokoak" izan. Adibidez: Araba Esnea, gazta, barazkiak, Luma Gorri oilaskoa, Arabako patata eta abar.*
- *Bertako produktuen azokak bisitatzeko eta produktu hauen ezaugarriak ezagutzea.*

[OLABIDE]

Hiritarrei ere honakoa **proposatzen** diegu.

- *Erosketak egiterakoan sasoikoa izatea eta zer erosten dugun kontuan izatea.*
- *Gure inguruan ditugun produktuak gehiago baloratzea eta daukaten garrantziaz kontzientzia hartzea.*
- Ogi ekologikoa industrialaren ordean erostea.
- Produktu ekologiko eta bertakoak kontsumitzearen abantailak barneratzea eta gehiago erostea animatzea:
 - Gure nekazaritza eta abeltzaintza bizirik mantentzeko.
 - CO₂-ren isurketa murrizteko.
- Produktu ekologikoak ekoiztea.
- Erabili gabeko lurrak izanez gero, dohainik edo alokairu merke baten truke nekazari ekologikoei utzi diezaietela.
- Eusko label etiketa duten produktuak erostea.
- Kultur eta bizimodu ekologikoa bultzatzea.

[SAN MARTÍN]

Eta Udalari **proposatzen** diogu:

- *Produktu kimikoak ez erabiltzeko arauak ipintzea.*
- *Bertako eta ekologikoak diren produktuak ekoizteko, ekoizle eta nekazariei laguntzak eskaintzea.*
- *Vitoria-Gasteizen bertako produktu ekologikoak dituzten azokak ezagutzera emateko Informazio kanpainak eratzea hauen kontsumoa bultzatzeko. Produktua hauen aldeko egun berezia sortzea.*
- *Etxe gutxiago eraikitzea eta soro eta landa horietan ortuak ipintzea.*

¹ Letra etzanaz dauden konpromisoak eta proposamenak, eskolen arteko foroan izan ziren ikasleek gehien bozkatu zituztenak.

- *Produktu biologikoen prezioak jaitea.*
- Gehien kontsumitzen diren produktuen gida bat ateratzea, noiz kontsumitu behar diren eta non erosi daitezkeen azalduz.
- Arabako produktu ekologikoak erosteko guneak, merkatuak eta azokak zabaltzea eta sustatzea.

[MERCEDARIAS]

- Baratza ekologikoak bultzatzea herritarren artean.
- Handizkako merkatua hobetzea produktu horien sal erosketa egin ahal izateko.
- Eraikinak eta errepideak egiterakoan lur eremuak errespetatzea.
- Ikastetxetan “elikatzen ikasteko” tailerrak antolatzea.
- Asteko fruta kontsumoa ziurtatzeko plangintza baten barruan, diru laguntza eskaintzea.
- Vitoria-Gasteizko handizkako merkatura irteera bat antolatzea, orokorrean postuak ezagutzeko eta bereziki arrain postuak.
- Baserritarrak kontrolatzea animalien baldintzak onak direla ziurtatzeko.
- Denda txikiei zerga gutxiago eskatzea.
- Soro gehiago egotea hiritik hurbil, sasoiko produktuak errazago lortzeko.

[VERA CRUZ]

LA IMPORTANCIA DE SEGUIR UNA DIETA SALUDABLE Y SOSTENIBLE

A la hora de alimentarnos, sabemos que es muy importante seguir una dieta variada y equilibrada para tener buena salud. Por medio de una pirámide nutricional, hemos comprobado si nuestra alimentación es saludable y también hemos anotado durante una semana los alimentos que consumimos.

Para mejorar nuestra alimentación, de modo que sea lo más saludable posible nos **comprometemos** a:

- No comer mantequilla, no comprar margarina y reducir el azúcar y la sal.
- Intentar probar todos los alimentos, aunque no nos guste su aspecto.
- Comer más fruta y verdura.
- Pedir productos locales en los restaurantes.
- Consumir más productos naturales, sanos y de comercio justo gracias a la asociación Serso de nuestro centro escolar (San Viator).

[NAZARETH]

Además de esto adquirimos los siguientes **compromisos** y a su vez se los **proponemos** a los ciudadanos/as:

- *Intentar seguir una dieta equilibrada.*
- *Comer más sano, dejar de consumir productos precocinados o ricos en grasas (hamburguesas, kebabs) y consumir más verduras, frutas, carnes limpias y pescado.*

Y le **planteamos** al Ayuntamiento:

- *Prohibir la venta de peces pequeños.*
- *Asegurar ayudas económicas a agricultores y ganaderos.*
- *Controlar la comida basura.*
- *Controlar la calidad de los alimentos que utilizan en los restaurantes.*
- *Realizar campañas de concienciación para lograr una alimentación sostenible.*
- *Seguir con el programa “Desayunos saludables” y promover también almuerzos equilibrados.*

[SAN IGNACIO]

DIETA BEREZIAK

Dieta desberdin asko dagoela ezagutu dugu eta jendeak arrazoi desberdinek eraginda jarraitzen dituela (gaixotasun, intolerantzia, erlijioa, ...). Gelakideei eta senitartekoei galdetu diegu ea dieta berezirik jarraitzen ote duten eta gaiaz hitz egiteko eskatu diegu.

Egiatzatu dugu ere, jatetxe gutxik eskaintzen dutela pertsona hauentzat menu berezia.

Horrexegatik honako **konpromisoa** hartuko dugu:

- *Urtebetetzetan kontuan hartuko ditugu dieta berezia eraman behar duten pertsonak.*

[CALASANZ-ESCOLAPIOS]

Eta hiritarrei **proposatzen** diegu:

- *Kontuan hartzeko elikadura arazoak dituzten pertsonak badaudela eta gure esku dagoela arazo horiek gutxitzea.*
- *Menu bereziak eskaintzen duten jatetxeak aurrera atera daitezen, gehiago joatea.*
- *Sasoiko eta bertako janariak erabiltzea menu berezietan.*

Eta udalari **proposatzen** diogu:

- *Dieta bereziak eskaintzen dituzten jatetxeak antolatzea eta erraztasunak ematea irekitzeko.*
- Dieta berezietako saltokien zerrenda bat ateratzea eta propaganda egitea.
- Zeliakoentzat eskaintza ugari lortzea.

[PRESENTACIÓN DE MARÍA]

KONTSUMO JASANGARRIA

Kezkatzen gaituen beste alderdi bat hauxe da: botatzen edo xahutzen den janari kopurua eta janaria biltzeko erabiltzen den plastiko kopurua (poltsak eta ontziak).

Horregatik erosketak egiterakoan honako **konpromisoa** hartuko dugu eta hiritarrei **proposatu** nahi diegu ere:

- Ahal bada bertako produktuak erostea, ontziratuta gabekoak eta birzikla daitezkeen poltsak erabiltzea.
- Janaririk ez botatzea.
- Ontzi berrerabilgarriak bultzatzea.
- Kontsumo arduratsua egitea.

Eta udalari **eskatzen** diogu:

- *Green Capital* logoarekin oihalezko poltsak egitea eta gasteiztarrei banatzea.

[SAN VIATOR]

LANDA PAISAIA ETA BIZIMODUA ZAINDU ETA MANTENTZEA

Gure landa ingurunearen babesaren eta bertako eta garaiko elikagaien arteko erlazio estua aztertu dugu. Horretarako argazki zaharrak erabili ditugu eta behatu dugu ere inguruan daukagun landa bizi modua.

Elikatzeko orduan ere, natur eremuen eta landa guneen babesa ziurtatzen laguntzeko, honako konpromisoak hartu ditugu; eta era berean hiritarrei ere proposatzen diegu:

- *Paisaiaren hobekuntzan parte hartzen saiatzeko, haziak ereiten, zuhaitzak gure ortuetan...*
- Garraiobide publikoak erabiltzea.
- Oinez edo bizikletaz desplazatzea.
- Gure ingurua zaintzea, paperik ez botatzea.
- Ingurumena gehiago errespetatzea eta honi buruz gogoeta egitea.
- Landa eremuetara joaten direnean, ez erretzea eta surik ez egitea.
- Birziklatzeari ekitea eta natur eremuetan hondakinik ez botatzea.

[SAGRADO CORAZÓN]

Eta Udalari **planteatzen** diogu::

- *Nekazariei ustiapen ekologikoak edo intentsiboak ez direnak mantentzen laguntzea..*
- Lantegi gehiago ez egitea hiriaren inguruan.
- Bidegorri gehiago egitea.
- Landa paisaia babestea.
- Landa paisaia mantentzen laguntzen duten abeltzaintza eta nekazaritza sustatzeko kanpainak egitea.

[CALASANZIO-ESCOLAPIAS]

ELIKADURA ETA ARIKETA FISIKOA

Ariketa fisikoa egiten eta telebista ikusten edo ordenagailu aurrean edo bideo jokotan igarotzen ditugun ordu kopurua zenbatu dugu. Horrez gain, hiritik bueltatxo bat eman dugu ariketa fisikoa eta jolasteko zenbat gune dagoen ezagutzeko.

Ariketa fisikoa egitea eta ondo elikatzea gure osasunerako garrantzizkoa dela dakigunez, honako **konpromisoa** hartuko dugu:

- Orain, eguraldi ona egiten duenez aprobetxatzea kirol ezberdinak praktikatzeko (igerilekua...), baita asteburuetan ere.
- Klean lagunekin gehiago jolastea.
- Kirol-kanpainetan parte hartzea.
- Parkeetako kulunken erabilera egokia eta egitea eta zaintzea.

[LANDAZURI]

Hiritarrei ere **proposatzen** dizkiegun beste honako **konpromiso** hauek ere, hartuko ditugu:

- Ahal bada Kirola egunero egitea oso inportantea baita osasuntsu egoteko.
- Telebista eta ordenagailua gutxiago ikustea eta erabiltzea.

Hiritarrei honakoa **proposatu** nahi diegu:

- Dauden kirol zerbitzuak erabiltzea.
- Bide gorria errespetatzea erregutzen diegu, gure segurtasuna bermatzeko.
- Bizimodu osasuntsua aurrera eramaten saiatzea

[SAN PRUDENCIO]

Eta Udalari **proposatu** nahi diogu:

- Gizarte etxeak eta kirola praktikatzeko guneak egoera onean mantentzea.
- Ariznabarra auzoan Bidegorriak jartzea
- Igeri lekura joateko txartela dohainik guztiontzat.
- Gizarte etxeetan kirol mota gehiago eskaintzea (hockey,...).
- Kirol gehiago egiteko kanpainak.
- Ordutegi zabala izatea gizarte etxeetan eta polikiroldegietan.
- Santa Lucia-Judimendi auzoaren kirol beharrak ezagutzeko ikerketa egitea.
- Leku faltagatik, kirol egin gabe zenbat jende gelditzen den jakiteko ikerketa egitea.

[INMACULADA CONCEPCIÓN]

BARATZA ERATU

Jabetu gara bertako eta sasoiko jakiek daukaten garrantziaz eta hirian baratza gehiago martxan egon zitezkeela uste dugu.

Horregatik honako **konpromisoa** hartuko dugu:

- Ortu bat antolatzea bertan gure produktuak landatzeko eta ikasteko.

Eta Udalari **proposatzen** diogu:

- Gure ikastetxe alboan dagoen parke publikoan (Secuoya-Magdalena kalean), Udaletxeak soro txiki bat egiten uztea bertan eskolako ortu bat egiteko.

[URKIDE]

Hauek izan dira Vitoria-Gasteizko neska mutilek Agenda 21i egin dizkiogun ekarpenak. Eskerrak eman nahi dizkizuegu eskaini diguzuen arreta eta denboragatik.

Elikadura jasangarriaren alde egindako lana eta ahalegina zuen onarpena izatea espero dugu eta denon partaidetzarekin hiri berde eta jasangarriagoa lortzeko bidean pauso txiki bat izatearen esperantzarekin, agurtzen zaituztegu.

Eskerrik asko zuen arretagatik, eta hurrengo bat arte.